

# BERRIAK ETA GAIAK

---

Bost berri dituzu ariketa honetan. Entzun banan-banan eta lotu bakoitza bere gaiarekin.

**Ohiturak / animaliak / lanbidea / gertaera harrigarria / zigorra**

## BERRIAK

1. Berria

2. Berria

3. Berria

4. Berria

5. Berria

## GAIAK

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

# BERRIAK ETA TITULUAK

---

Entzun berriak eta lotu tituluekin. Titulu bat ez dute esaten.

	1.	2.	3.	4.	5.	EZ
Medikuak harrিতa daude, senarra haserre						
Isuna ordaindu eta etxebizitza utzi beharko du.						
Arazoak lanpostua betetzeko.						
Japoniarrek oso gustukoa dute turismo egitea eta Internet.						
Toki batzuetan galtzen ari da, baina ez hemen						
Kanpoko jendearen laguntzari esker bizi dira.						

# BERRIEN GAIAK IDATZI

---

Orain idatzi berri bakoitzaren gaia zure hitzekin( ez duzu dena ulertu behar; idatzi pare bat hitz garrantzitsu eta osatu esaldia). Egin ondoren, konparatu zureak hemengo ereduekin. Eredu moduan, 4. berriaren gaia idatzita daukazu.

**1. BERRIA**

---

**2. BERRIA**

---

**3. BERRIA**

---

**4. BERRIA**

Gazte bat zigortu dute, etxean zarata handia egin zuelako.

---

**5. BERRIA**

---

# BERRIEN TRANSKRIPZIOA

---

## 1. Berria

ESATARIA. Vietnamen emakume batek haur bikiak izan ditu. Jaio eta aste batzuetara egiaztatu dute ume bakoitza aita ezberdin batena dela. Auziak harridura eragin du medikuen artean eta aitaren haserrea.

JUANJO SAN MIGUEL. Gertatu gertatu liteke. Emakumeak hilekoa duenean eta 72 orduko epean bi gizon ezberdinekin sexu-harremanak baditu, posible da bi obulu ezberdin ernaltzea eta, ondorioz, bikiak jaiotzea, eta bi haur horiek aita desberdinak izatea.

## 2. Berria

ESATARIA. Zeelanda berriko herri txiki bateko medikuak jubilazioa hartu nahi du, 61 urte ditu eta erreleboa behar du. Orain dela bi urte hasi zen ordezkotila eta 24 hilabetez ez da hautagairik agertu. Eta zergatik? Noski, lanpostu honek ere badu bere alderdi txarra. Egunean 43 gaixo artatu beharko ditu, batez beste, sendagile berri honek, herri hartako medikuen elkargoak egunero 25 gaixo artatzeko gomendioa egiten duen arren. Beraz, serio lan egitea tokatuko zaio lanpostu hartzen duenari.

## 3. Berria

ESATARIA 1. Kaixo, arratsalde on. Gaur irakurri dugu jada Erresuma Batuan jendeak ez duela txistu egiten. Edo lehen baino dezentez gutxiago egiten duela, behintzat.

ESATARIA 2. Aldaketa hau bi arrazoirengatik izan liteke: teknologia berriengatik, uneoro musika entzuten ari garelako- eta honek ez digula txistu egiten uzten-, edo, beste barik, langile-klasearen ohitura herrikoi hau galde egin delako.

Gure ingurura etorrita, emaitza oso bestelakoa da: 15-40 urte arteko lau biztanletik hiruk egiten omen dute txistu, edo honen faltan kantatu.

#### **4. Berria**

Urteak zeramatzan bizilagunei egunerokoan enbarazu egiten, egunez eta gauzez atea indar handiz itxiz, zarata etengabea eginez. Baina batez ere musika legez baimendutakoa baino ozenagoa jarriz. Etxetik ateratzen zenean ere maiz uzten zuen musika-aparatua martxan. Horrek, noski, bizilagunen egonezina eta haserrea eragin zituen. 14 hilabeteko espetxe-zigorra jarri dio Almudena Ovejero epaileak gazteari. Eta ez hori bakarrik: etxea utzi egin beharko du eta 15.000 euroko kalte-ordaina ordaindu beharko die osasun-arazoak dituzten senar-amazteei.

#### **5. Berria**

Japonian badago katuen uhartea deitzen dioten irla bat. 16 lagun bakarrik bizi dira eta 140 katu. Turistentzak ohiko tokia bihurtu da katuen uharte hau eta, hain zuzen ere, bidaiari hauek emandako janariarekin elikatzen dira animalioak. Baina eurite-garaian daude Japonian eta ferryyetan apenas ari den joaten turistarik irla honetara eta, ondorioz, katuak janaririk Gabe geratzen ari dira. Eta nork salbatu ditu katuak? Ea pentsatu. Twitterren deia egin zuten uharteko lagunek, eta katuak gose zirela publikatu zuten; eta milaka kaxa jaso dituzte.